

Frank Lloyd Wright

GUGGENHEIM BILBAO

FRANK LLOYD WRIGHT ETA LAN-MAISUAREN ERROMANTIZISMOA	3
KOADRIKULATIK ABIATUTA KOMUNITATE BERRI BAT SORTZEA.....	13

FRANK LLOYD WRIGHT ETA LAN-MAISUAREN ERROMANTIZISMOA

RICHARD CLEARY

1905eko azaroan Darwin Martin eta haren familia Bufaloko, New York, beren etxera joateko zorian zeudenean, artean etxea bukatu gabe zegoela, Frank Lloyd Wrightek onartu zuen entrega-epeak gainditu egin zirela, eta hau aitortu zion: “Gogogabetua nago, baina datorren urtean eginahalak egingo ditut ea lortzen dudan langile eta fabrikatzaile gaitu eta zintzoen talde bat, ziztu bizian aberasteko asmorik gabea eta lan ongi eginaren zalea”¹. Ohar hura, zentzu batean, estrategikoa zen Martinek kontuan har ez zezan Wrightek berak atzerapenetan zeukan erantzukizuna, baina etengabeko kezka baten adierazpen egiaz esana ere bazen: haren ikuspegitik lan arkitektoniko ukigarri baterako translazioa kontrolatzea. Diseinatzaileen ohiko arazoa da hori, bai eta sukalde bat eraberrituko duen edonorena, eta, arkitekturaren jardunaren ezinbesteko erronkatzat har daitekeen arren, Wrightek eraikuntzaren lanari eta arteari buruzko ideia erromantiko batzuk erantsi zizkion kalitatezko materialak eta langileak lortzeko zeregin praktikoari.

Diseinuaren eta eraikuntzaren arteko arrakala txikitu nahian dabilzan arkitekto batzuek bitartekarienganako ahalik eta mendekotasunik gutxiena izango duen eskala batera mugatzen dute beren jardueren esparrua. Zentzu honetan gogoangarria da Carlo Scarpa, zeinak XX. mendearen erdialdera Italiako Veneton bakarrik lan egiten baitzuen, eta zehatz-mehatz zehaztutako eraikin batzuk sortu baitzituen han, eskulangile talde baten arduraren gogotsuaren laguntzaz. Hala ere, Wrightek estrategia bat finkatu nahi izan zuen, hari esker lortu nahi baitzuen, aldi berean, nazio-mailan lan egitea, eraikuntza-prozesu berritzaileekin esperimentatzea eta lan-maisuekin oso harreman onak izatea. Asmo horiek ez ziren erraz bateragarriak, eta, jardun profesionalean egin zituen hirurogeita hamabi urteetan zehar, jardun horren antolamenduari esperimentatu zuen, haien bateratzeko ahalegin batean. Batzuetan, Martinekin eta haren kontratista Osear S. Lang-ekin izan zuen esperientzia bezala, “lan ondo egina” gustatzen zitzairen pertsonekin topo egin zuen, baina, beste kasu batzuetan, lan ondo eginaz berak zituen itxaropenak besteek emateko prest zeudena baino haragokoak ziren.

Wrightentzat, pertsona baten lan-etika haren izaeraren funtsezko alderdi bat zen, eta gai gisa defendatu zuen ideia hori bere *Autobiografian*, 1932an argitaratua eta 1943an orraztua. Hasierako orrialdeetan idazten zuen nola amaren aldeko aitona, Richard Lloyd Jones-ek, Helena Haranean, Spring Greeendik gertu, Wisconsin, hartu zuenean bizilekua, erakusten zien seme-alabei “nekea eransten, gero neke gehiago eranste”². Nekazari-bizitzaren funtsezko etika hori indartu egin zuen Wrighten erlijio-prestakuntza protestanteak, eta printzipio estetiko bihurtu zen John Ruskin-en testuak ezagutu ondoren. “Egia, erabakitasunak eta neurritasunak, guk izaki espiritualaren baldintza ohoragarritzat dauzkagunak”, zioen Ruskinek *Arkitekturaren zazpi lanparak* idazlanean, “errepresentaziozko edo deribaziozko eragin bat dute eskulangintzetan, egituraren mugimenduetan eta burulanaren jardunean”³.

Gaztetan bere ahaideekin batera “Jones ahalguztidunen haranean” lan egiten zuenean, Maginel Wright Barney-ren esapidea erabiltzearren, Wrightek Ruskinen orrialdeetatik aterea izan zitekeen galestar hargin bat ezagutu zuen⁴. 1870eko hamarkada amaieratik aurrera, David Timothy, “bibote handikoa eta begiak keinurako prest”, familiak haranean jaso zituen eraikinen ia hargin-lan gehienean aritu zen, besteak beste, kaperan (1885–86), non Wrightek parte hartu baitzuen, eta *Hillsideko Barnetegian* (1887, 1901–03), hark diseinatutakoan⁵. Timothy 1909an hil zenean Wrighten osaba, Eliza Unitarioko ministro prestu Jenkin Lloyd Jones, Chicagotik joan zen haren elizkizuna egitera. Bere gorazarrean, goraiatu egin zuen “hargin xumea [...], ez baitzuen onartzen harri bakar bat ere, xaloa izanagatik, lerrotik kanpo geratzea, ezta ere lerro bat bera ere haren aditu-begiradak zuzendu gabe egotea; eskulangile apala, haren janzkera xumean —langile baten eguneroko arropa— zuen guztien artean mugitzen zen, jakintsu eta santu; gizon hura, langile trebea zen arren, jendeak gehiago maite zuen eta areago gailentzen zen haien artean haren buruaren argitasunagatik eta haren bihotzaren ontasunagatik”⁶.

la berrogeita hamar urte geroago, Wrightek Timothy goraiatzen jarraitzen zuen, “galestar hargin zaharrak” erakutsi baitzion “hormagintza lehorreko zimendatzearen” teknika (sakonera gutxiko zimenduak, ura drainatzeko prestatutako hartxintxa-geruza batean jarriak, izotzaldietan eta desizozte garaietan mugitu ez daitezten), bere karreran zeharreko hainbat eraikinetan erabili zuena⁷.

1887an, hemeretzi urterekin, Wright Wiscosindik Chicagora joan zenean arkitektura-karrera hasteko, Joseph Lyman Silsbeer-en estudioan lan egin zuen bolada labur batean, zeinak bere familiaren kapera diseinatu baitzuen, eta Adler & Sullivan enpresara aldatu zen gero, non Louis Sullivan-en laguntzaile aritu baitzen sei urtez, 1893an bere estudioa zabaldu aurretik. Adler & Sullivanen, bereziki, Helena Haraneko kultura kuttunaren eta eskulangintzakoaren desberdina zen jardun arkitektoniko bat aurkitu zuen Wrightek⁸. Enpresak eraiki beharreko eraikin komertzial eta zibilen konplexutasunak eta haiek azkar batean eraiki beharrek arkitektoen, ingeniari-aholkularien eta kontratisten antolamendu hierarkiko eta gero eta espezializatuago bat eskatzen zuten. Auditoriumeko eraikina egiterakoan, Wright han lanean hasi zenean Chicagon egiten ari ziren proiektua, Paul Mueller, Dankmar Adler-en laguntzailea, zen kontratista-sarea koordinatzeko gizon funtsezkoa (ez zegoen kontratista nagusirik). Mueller Wright baino hiru urte zaharragoa zen, eta 1881ean Alemaniatik Chicagora emigratu zuen; bazuen nolabaiteko prestakuntza teknikoa ingeniartzan, eta, 1886an Adler & Sullivanen sartu aurretik, altzairuzko egiturak diseinatzeko eta eraikitzen zituzten enpresa batzuekin lan egina zen⁹.

Mueller eta Wright berehala egin ziren adiskide eta elkarren gaitasun profesionalaz fio izan ziren, eta harreman hark Adler & Sullivanen igaro zituzten urteen ondoren iraun zuen. Wrighti enkargatzen zizkieten bizilekuak egiteko Muellerekin jakintza espezializatuen beharrik ez bazuen ere, harengana jo zuen kontratista nagusi edo proiektu-zuzendari gisa haren enkargu konplexuagoetarako, hasieran Bufaloko *Larkin Companyren bulego-eraikinerako* (1902–06) eta, gero, Chicagoko Oak Park auzoko *Tenplu Unitarioarako* (1905–08), Chicagoko *Midway Lorategietarako* (1913–14), eta Tokioko *Hotel Imperialerako* (1912–22). Wrightek aintzat hartzen zuen bere asmoak antzemateko eta garai hartako eraikuntza-tekniken mugaren barruan haiek gauzatzeko Muellerrek senez zuen gaitasuna, eta Muellerekin ekarpenak goraiatu zituen *Tenplu Unitarioaz* bere *Autobiografian* egiten duen deskribapenean: “Orain Paul Mueller erreskatean dator, erraz asko irakurtzen du eskema. Esleitu zaiena baino zertxobait gehiagoan eraikiko duela esaten du, bai hala egin ere. Lasai hartuko du lana, ia urtebetez, baina egin egingo du. Azkenean ez du asko galduko proiektu horretan. [Wrighten oroitzapen edulkoratuak ez dute aintzat

hartzen Muellerek porrot egin, eta dirurik gabe gelditu zela eraikina bukatu ondoren]. Izugarri gustatzen zaio ideiak erreskatatzea, sorkuntzan parte hartzea. Eta elkarrekin gainditzen ditugu zailtasun guztiak lekuan bertan, arkitektoaren prestakuntza sekula aski izaten ez den tokian”¹⁰. Mueller 1934an hil ondoren, Wright saiatu zen beste pertsona batzuekin antzeko harremana izaten, batik bat William Wesley Peters-ekin, zeinak Taliesingo Komunitatean gauzatzen zituen bere arkitektura- eta ingeniari- eta ezagutzak, eta Mendel Glickman ingeniariarekin eta Ben Wiltscheck kontratistarekin, eta, Muellerekin egina zuen bezala, kanpoko aholkulari gisa jotzen zuen haiengana¹¹.

Wrightek Chicagoko Oak Park auzoan zeukan estudioak Adler & Sullivanek Auditoriumeko Eraikinaren dorrean zeuzkan bulegoen oso bestelakoa zuen giroa. Estudioak haren etxearen luzapen gisa zeukan kokaera fisikoak Arts & Crafts (Arteak eta langintzak) mugimenduak erabateko diseinuaz eta bizitza pertsonalaren eta lanaren arteko oztupoak kentzeaz zituen idealak adierazten zituen. Beste artista batzuen noizbehinkako presentzia, hala nola Richard W. Bock eskultorearena, mugimendu horren beste ideal bat lortzeko urrats bat gehiagotzat har daiteke: diseinugileen, eskulangileen eta fabrikatzaileen arteko interakzio perfektuena, zeina Wrightek 1901ean egin zuen “The Art and Craft of the Machine” (Makinaren artea eta langintza) izeneko hitzaldi batean defendatu baitzuen. Antolaera ezohikoa baldin bazen ere, estudioak XX. mendeko lehenengo urteetan zuen antolamendu-egitura ezaguna egingo zitzaie azkenean bezeroei eta kontratistei¹². Esperientzia eta asmamen handiko kideak zeuzkan Wrightek inguruan. Horien artean aipagarriak dira Walter Burley Griffin, estudioa zuzentzen zuena, eta Marion Mahony, biak arkitekturako titulu profesionaldunak, eta William Drummond, zeina, Griffin bezala, arkitektoen elkargoko kidea baitzen. Gainera, beste hiru lagunek lan egiten zuten han delineatzaile gisa. Lehen batean, estudioan bazeuden enkargu ugarien diseinuaren garapenaren eta eraikuntzaren gainbegiratzearen eginbeharrak betetzeko lan langile, baina Wrightek ez zituen garaiz betetzen betekizunak, ez baitzien arreta handirik jartzen ezarritako entrega-epeteei eta ez baitzen oso jarraikia erantzukizunak ordezkatzeko orduan. Horregatik guztiagatik, hona zer esan zion 1904an William Martinek haren anaia Darwin-i: “Izan ere, baldin eta Wrighten *planoak* [jatorrizkoan letra etzanez] ‘bitxi samarrak’ badirudite, haren lan-metodoak are bitxiagoak dira”¹³. Handik urtebetera, Darwinek errieta egin zion Wrighti: “Garaiz buka itzazu gauzak. Zerua garaiz ez badabil ere. Hasieran hilabetekoak eta gero urtekoak diren atzerapenak hilgarriak dira”¹⁴.

Wrightek laguntzaile gaituak behar zituen berak nahi zuen mailan lan egiteko, baina ez zen egoten beti prest kontrola uzteko eta zalantzan jartzen zuen bere enplegatuen leialtasuna haiek modu independentean aritzen zirenean. Griffin enpresatik joan zenerako, 1906an, bere enpresa propioa sortzeko, Wrighten ustez haren jarduna ez zen hainbeste nagusien eta kideen artekoa, maisuaren eta aprendizaren artekoa baizik. 1908an honela idatzi zuen estudioaz: “gure unibertsitate txikia”, gazte asko izaten dituen, “ia kasu guztietan prestakuntzarik gabeak [...], eta pazientzia handiz urte askoan zehar hezten direnak laneko giroan bertan”¹⁵. Garai hartan, iruzkin hori gehiago zen helburu bat gertaera bat baino, baina Wrightek eutsi egingo zion ikuspegi horri, eta bai azkenean praktikan jarri ere, 1932an Taliesingo Komunitatea sortu zuenean.

1909ko udazkenean Wrightek estudioa itxi zuen, eta, familia utzirik, Europara joan zen Mamah Borthwick Cheney-rekin, etorkizunerako asmo garbirik gabe. Itzuli zenean, handik urtebetera, asko kostatu zitzaion berriz martxan jartzea. Helena Haranean, Wiscosin, finkatzeko eta aldi berean bezero zerrenda bat Chicagon mantentzeko erabakiak bi bulego eskatzen zituen, bata hirian eta bestea bere etxe berrian,

Taliesinen. Enplegatutako langile kopurua lanaren arabera desberdina izaten zen eta, batzuetan, laguntzaile bakar batera mugaturik egoten zen. Delineatzaile batzuk Oak Parkeko estudioan lan eginak ziren, baina, oro har, baztertu egiten zuen “guardia zaharra”, zerotik hasten tematua, utzia zuen lekuan jarraitu ordez¹⁶.

Lan egiteko modu desberdinak esploratzeko Wrighten ahaleginak argi eta garbi islatzen dira 1910eko hamarkadako bi proiektutan: *Taliesin* eta Amerikar Sistemako Etxe Eraikiak (American System-Built Houses). *Taliesinen*, eskulangintzaren mundura itzuli zen Wright eta langile arduratsuen komunitate batez inguratu zen, David Timothyren ondorengo espiritualetan, alegia. Bere *Autobiografia*n esperientzia hura kontatuz, haien izenak oroitzen zituen: Ben Davis, “sortzaile biraogilea”; William Weston, “arkitektoei lanean ikustea gustatzen zaien arrotz horietako bat”; eta Billie Little, Oak Parken berarentzat etxeak eraiki izan zituen. Wrightek bereziki aipatzen zituen Father Larson (“norvegiar zaharra”), Dad Signola eta Philip Volk harginak: “Harginek harri guztiak finkatu zituzten, harrobia eredutzat eta arkitektoa maisutzat harturik. Ertz zimurtsuenak agerian utzirik, paretak harrobiko harriaren ertz luze, fin eta lauetatik finkatzen ikasi zuten igeltseroek. Harri bat jartzen zuten orduko, atzera egiten zuten efektua ikusteko. Laster egon ziren eskultorea bere estatuan bezain interesatuak; eta pentsa zitekeen hala zirela, ikusirik nola egiten zuten atzera, burua alde batera jiratzuz, eta efektua begietsiz”¹⁷. Wrighten lan-erritmo motel samarrak eta bere enplegatutako etxekotasunez tratatzeak inprobisatzen uzten zioten; izan ere, Taliesingo eraikinekin, beren jatorrizko forman eta gaur egun dutenean, diseinu aldaketan historia konplikatu bat eta esku askoren parte hartzea islatzen dute¹⁸. Xehetasunen egikera eta esku-lanaren kalitatea aldatu egiten dira zakarretik dotorerara, baina materialen hautaketa eta haien erabilera arautzen duen kontzeptu nagusiak lausotu egiten du multzo osoaren edozein aldaketa ustekabekoa edo berariazkoa.

Taliesinek bere hasierako forma hartzen zuen artean, 1914ko sute tragikoak hura suntsitu eta gero berreraiki ondoren, Wrightek arreata handia jarria zuen inprobisazioa ezabatu eta eraikitzailearen zeregina arkitektoaren gainbegiratze hurbila gabe jarrai zitezkeeneko jarraibide batzuk zorrotz betetzera murriztu nahi zuen proiektu batean. Amerikar Sistemako Etxe Eraikiak proiektua antolatu zuen Arthur L. Richardsekin elkarlanean; Richards hori Milwaukeeko, Wisconsin, etxegintza-sustatzaile bat zen, 1911z geroztik Wrighten bezeroa zena. Proiektuaren sorrera haren existentzia formala baino luzeagoa izan zen, nonbait, bi urte iraun baitzuen, 1915etik 1917ra, baina tarte labur horretan hiru bat dozena etxerako diseinuak ekoitzi zituen Wrightek¹⁹.

Amerikar Sistemako Etxe Eraikiaren premisa zen etxebizitza bat erosi nahi zuten erdiko klaseko pertsonen norbaitek etxea beren gustu eta premien arabera egin ahal izateko aukera eskaintzea, prezioa eta kalitatea bermaturik. Saltzaile edo kontratista baimendu batekin lan eginez, bezeroak oinarritzko eskema bat aukera zezakeen eta hura moldatu solairuaren, orientazioaren eta estalkiaren konfigurazioak malgutzeko aukera eskaintzen zuten modulu-aldaera batzuen artean hautaturik. Eraikuntzako elementuak, haien artean zur jadanik zerratua, ateak eta leihoak, Milwaukeeen zeuden zerrategi eta biltegi banatik bidaltzen ziren eraikuntzara. Lan-eskema garai hartan postaz enkargatutako etxeen instalazioa eskaintzen zuten beste enpresa batzuen oso antzekoa zen, haien artean, Modern Homes ospetsua, Sears, Roebuck and Co.rena, baina Wrighten sistemaren modulartasunean (138 mota proiektatu zituen harentzat) alde handia zegoen haiekiko, lehiakideen artean aurkaririk ez zuten pertsonalizazio-maila eskaintzen baitzuen.

Amerikar Sistemako Etxe Eraikiek mendebalde erdialdeko (baita Estatu Batu osoko) jende gehienarengana iristeko aukera ematen zioten Wrighti, bere jarduera enkargu indibidual txikien kudeaketa nekagarri mugatu behar izan gabe. Gainera, horri esker kontrola zezakeen bai eraikuntzako materialen kalitatea hornidura-puntuak eta bai esku-lanaren kalitatea osagaien produkzio estandarizatua zerrategian eginez, eta bai eraikuntzako lana bera eraikitzaile baimenduen bitartez. Sistema horrekin, produkzio-prozesu batean eta ez obra-nagusi baten irizpide indibidualean jartzen zuen Wrightek bere konfiantza.

Hedapen handiko hastapen bat izan arren, 1917an Wrightek bat-batean hautsi zuen Richardsekiko bere lankidetzak. Zaila da jakiten ea enpresak aurrera egingo ote zuen Wrightek hori egin izan ez balu, baina, enpresa hura utzi zuen arren, ez zion uko egin etxebizitzak eraikitzeko planteamendu berria garatzeko ahaleginari. Prefabrikazioa interesatzen zitzaion oraindik ere, eta 1954an, hainbat urtez gauzatu ez ziren ahaleginetan ibili ondoren, Marshall Erdman izeneko Wisconsinera eraikitzaile gazte batekin elkartu zen, eta alde zuzenetik ebakitako eta prefabrikatutako osagaiak erabiliz eraikiko ziren familiako etxebizitzak diseinatuak eskaini zizkion²⁰.

Wrightek Los Angelesen, Kalifornia, eta inguruetan 1920ko hamarkadan eraiki zituen hormigoizko blokeko eraikinek eraikuntzaren ohiko praktikatik errotikako beste urruntze bat markatu zuten. Amerikar Sistemako Etxe Eraikien eraikuntza-ereduak ez bezala —etxe haiek zuzeneko egitura konbentzional bat zeukaten, akaberazko materialez kanpotik eta barrutik estalia—, haren hormigoizko bloke diseinudunek berdin balio zuten egitura gisa nola akabera gisa²¹. Wrightek bere “ehungintzako blokeen” sistemaz egiten dituen deskribapenak bizi-biziki dira, dimentsio erromantiko bat ematen baitio etxea mihizatzen zereginari, *in situ* zulatutako agregatuarekin prefabrikatutako blokeen bitartez, eta haiek altzairuzko hagatxoekin indartutako hormetan korapilatuz. Diagramak, ordea, faltsutu egiten dute sistemaren konplexutasuna. *Samuel eta Harriet Freemanen etxea* eraikitzeko, adibidez, hirurogeita hamasei bloke mota eta eskuzko lanabesekin *in situ* fabrikatutako ia 10.000 bloke behar izan ziren. Haien posizioari, sendotzeari eta zigilatzeari buruzko milaka xehetasun ebatzi behar izan ziren²².

Kaliforniako etxeak prototipoak ziren sistema heldu bat bainoago, eta Wright eraikuntzarako dokumentuak ekoizteari eta eraikuntza berari oso erne egotea eskatzen zuten, baina hark emaztearekin zeuzkan arazoek, bai eta arazo ekonomiko eta profesionalek, arreta guztia kentzen zioten. Amerikar Sistemako Etxe Eraikien enpresa-proiektua ez bezala —jarduteko eginbide zehatz bat eskatzen baitzuten, diseinu estandarizatutik hasi eta profesional hautatuek hura eraiki arte, materialen banaketa zentralizatua tartean—, hormigoizko blokeko etxeen kudeaketa inprobisatu egin zen. Robert Sweeney-k haren historiak egiten duen kontakizunean dioenez, Wrightek bulegoak Los Angelesen edo Taliesinen kokatzerakoan izan zituen zalantzek korapilatu egin zuten enkargu berezi haien diseinu-prozesua, eta mugatu egin zuen bezeroekin elkarriketatzeko haren gaitasuna, eta lanerako planoen prestakuntza Kaliforniako hegoaldearen eta mendebalde erdialdearen artean banatzera behartu zuten. Gainera, ehungintzako blokeen sistemaren logika ez zuten lekuan lekuko kontratistek ondo ulertzen, Wrighten buruan argi eta garbi baldin bazegoen ere. Wrightek haien ezagutza sustatu nahi izan zuen, *Alice Millard* etxearen (La Miniatura) kontratistari —A. C. Parlee izeneko Pasadenako etxegile bat— gerotik beste enkargu batzuk egiteko eskatuz, baina harremanak gaizki bukatu zuen, salaketetan eta auzitegian²³. Wrighten semeak, Lloydek —Kalifornian aitaren aurretik ibilitako arkitektoa eta paisajista—, hartu zuen bere gain aitaren planteamendua obraren kokalekuko ezaugarriekin adostu behar zaren zama. Kontratista

gisa ere aritu zen *John Storer etxean* eta *Freeman etxean*, baina zeregina ez zen batere erraza izan. Wrighten semea izateak eta aldi beren beraren jarduera aurrera eramaten ahalegintzeak berez sortzen zizkion tirabirez gainera, Lloydek ez zuen bere irizpidearen arabera aritzeko aginpide handirik eta aitaren iritzi aldaketan mendean egon behar izaten zuen beti.

Esperientzia horretaz gogoeta eginez, 1927an hau aitortzen zuen Wrightek: “Sistemak ustez izan behar zituen abantaila guztietatik bat bera ez zen eredu haien eraikuntzan suertatu. Ez geunden antolatua”. Baina arazoek ez zuten lortu haren konfiantza gutxitzea²⁴. Sistema fintzen jarraitu zuen, eta 1950eko hamarkadan familia gazte batzuentzat egindako etxe xume batzuei aplikatu zien. “Kasu honetan”, idatzi zuen 1954an, “gure demokraziako gizon librearentzat neurritzkoa den aurrekontu batekin, adimen pixka batekin eta beraren energiari esker, arkitektura organikoaren printzipioen arabera diseinatutako etxe natural bat sortzen da”²⁵. Wrighten buruan, ehungintzako blokeen sistemari esker, edozein militarrek eta haren familiak bere burua aski duen eraikitzaile-nekazariaren ideal erromantikoa burutu zezakeen, eta haien berek eraiki ahal izango zuten horrela etxe zeharo moderno bat. Kontratastaren zeregina lan espezializatu batzuk egitera mugatu zenez, familia arkitektoaren esku gogotsuak bilakatzen zen, eta haren asmo estetikoak eraikuntza-sisteman ezarriak geratuko ziren. Wright ez zen mugatu etxebizitza bat erosi nahi zuten pertsonen artean bezero-eraikitzaile izateko aukera sustatzera mugatu. *Floridako Hegoaldeko Unibertsitateko lehenengo eraikinetan* (1938an hasi zen), ehungintzako bloke sistema erabili zuten ikasleek egin zuten lanaren zatirik handiena, eta Shorewood Hillseko —Madisongo auzo bat, Wisconsin— *Bilkura Etxe Unitarioko* (1945–51) kongregazioak lagundu egin zion Marshall Erdman kontratastari, astegun jakin batzuetan langileak emanez²⁶.

1932an Taliesingo Komunitatea sortu zenean gauzatu zen Wrightek hogeita lau urte lehenago deskribatu zuen gazte jendearen “unibertsitate txikia”. Apendizen prestakuntzaren barne zegoen baserri batek berez eskatzen duen eskulan gogorra, berak gaztetan egina zuena, bai eta *Taliesin* eraikitzen parte hartzea ere, martxan baitzegoen, eta han hausnartzen zituzten ikasleek landa-aldeko eraikitzaileen ikasgaiak eta lan-etika, adibidez, Charlie Curtis igeltseroarena, zeinak hau esaten baitzien bere apendiziei: “Mutilok, ukitze hutsez ezagutu behar duzue arroka, galduta zaudete bestela”²⁷. 1938an, Komunitateak Scottsdaldetik gertu, Arizona, *Taliesin Mendebaldea* eraikitzea erantsi zion bere lan-programari. Wiscosingo haren baliokideek bezala, Taliesin Mendebaldeko eraikinek “landu gabeko basamortuko harrizko” —hala deitzen zion Wrightek— hormagintza bitxian sumatzen diren aldaeren bitartez eta zakar zerratutako zurezko egituraren bitartez erakusten dute beren sorkuntzaren historia.

Aprendizentzat Taliesinen eta Taliesin Mendebaldean egiten zuten lana gerorako lanetarako prestakuntza izatea nahi zuen Wrightek, beste obra batzuetan beraren ordezkari izango zirelakoan. Asmoa duina zen, baina era desberdinez planteatu zuen egin zizkieten etxebizitza-enkargu desberdinetan²⁸. Eraikuntzako enplegatu gisa bidaltzen zituenean, Wrightek lansari bat ematen zien apendiziei eta ostatu ematearen eta mantenuaren gastuak bezeroak ordaintzen zituen. Kontratasta orokorrik ez bazegoen, azpikontratak aukeratzen eta koordinatzen laguntzen zieten apendiziek bezeroei, eta, gainera, egindako lanaren kalitatea kontrolatzen zuten. Komunitatearen lehenengo urteetan ez zuten esperientzia kolektibo handirik izan hartan oinarritu ahal izateko, eta ikaste-prozesu zail bati ekin behar izan zioten. Horixe gertatu zitzaion Edgar Tafel-i eta Bob Mosher-i, hogeitaka urte baitzituzten Wrightek *Ur-jauziko etxean* eraikuntza kontrolatzera bidali zituenean; Pensilvaniako mendebaldean ur-jauzi

baten gainean hegalean eraikitako etxea zen hura. Gogor eta beren printzipioenganako leialtasun osoz lan egin zuten, eta halaxe berdindu zuten beren esperientziarik eza.

Ur-jauziko etxea gainbegiratzeko oinarritzko lanen artean, eta harrizko hormagintza erabiltzen zen beste enkargu batzuetan, Wrighti harria nola jartzea gustatzen zitzaion igeltseroei erakustea zen haietariko bat. Harria estratifikazio naturalaren arabera jartzeko Wrighten insistentzia obraren jarraibide teknikoetan ager zitekeen, baina harri bakoitza hornei nortasuna emango zien eredu erritmiko baten arabera jartzeak komunikazio zuzena eskatzen zuen. Taliesingo eraikuntzan bezala, Wrightek nahi zuen igeltseroek “estatua bat lantzen ari den eskultorearen” harrotasunez egitea beren lana eta nork bere sormenaz baliatzea, bere eskema arkitektonikoaren eredu orokorren barruan. Halakoxea zen ikasgai horren garrantzia, non Kentuck Knob (I. N. Hagan etxea, 1953–56) eraikitzeari egin zitzaion gainbegiratze zuzen bakarra Allen (Davy) Davisonen harlandutzat hareharriak erabiltzea onartzea izan baitzen (piezetan ebakitzen zituzten eta ilaratan jartzen), eta igeltseroek horma bat jasotzerakoan eginiko lehen urratsak kontrolatzea ere bai²⁹.

Wrightek 1930eko hamarkadako erdialdetik hil arte diseinatu zituen usoniar etxeek eraikuntza-sistema berritzaileak zituzten, adibidez, kanpoko eta barruko akaberaz estalitako zurezko geruza mehez eginiko tabikeak, lantegi batean fabrikatu (nahiz gutxitan egiten zen) edo *in situ* eraiki zitezkeenak, eta geometria bitxiak, bereziki iradokitzaileak. Premiak batere konbentzionalak ez izateak zaildu egiten zuen kostuak kalkulatzeko, langileenak batik bat, eta kontratista askok uko egiten zieten eskuan Wrighten marrazki-sorta batekin hurbiltzen zitzaizkien bezeroei. Bere eskemen bideragarritasuna frogatzen tematua zegoenez, Wright ahalegindu zen haiek gauzatzen bere bezeroei laguntzen. Shorewood Hillseko (Wisconsin) *John C. Pew etxerako* William Wesley Peters aprendizak aukeratu zuen —bere suhia zen eta bere kasako irabaziaz zeuzkan— kontratista orokor gisa aritu zedin. Handik ia berrogeita hamar urtera egin zioten elkarrizketa batean, Petersek deskribatzen zuen nola berak eta beste aprendiz batek, Cary Caraway-k, eginahalak egin behar izan zituzten Pewtarren aurrekontura mugatzeko, 6.700 dolar (gaur egungo 100.000 bat dolarren balioa), eta, hartarako, material birziklatuak erabili zituzten, langile talde txiki-txiki bat kontratatu zuten eta berek egin zuten lanaren zati handi bat. Ahaleginak ahalegin, komisioko 1.100 dolar gutxi gorabehera galdu zituztela oroitzen zuten³⁰.

Paul R.-k eta Jean S. Hanna-k kontratista orokorraren zereginak egin zituzten Palo Altoko beren etxea eraiki zutenean, Kalifornia, (1935–37)³¹. Harold Turner zurginaren eta etxegilearen laguntza kontratatu zuten, eta hark aholkua eman zien gremioak kontratatzeke eta koordinatzeko orduan. Usoniar etxeen diseinua ezagutuko zuen kontratista-talde bat eratu nahian, Wrightek Taliesinera gonbidatu zuen Turner, Komunitateko espirituan eta praktikan murgil zedin. Etxea eraikitzeak komunikazio etengabe eta batzuetan sumingarri bat eskatzen zuen Palo Altoren eta Taliesinen artean, baina borondate oneko dosi handiekin atera ziren parte-hartzaile guztiak prozesutik. Turner, Wrightek espero izan bezala, beste dozena erdi usoniar etxeetarako aholkulari edo kontratista izan zen gerora³².

Bere *Autobiografiaren* bigarren edizioan, Wrightek Taliesingo Komunitatearen arrakasta ospatzen zuen eta haren garaipena ere bai Harold Turner bezalako jarraitzaileak kausaren alde irabaztean. “Baina geure eraikinak eraiki eta geure materialak fabrikatu ahal izango dugun garaia oso urrun dago oraindik”, onartzen zuen³³. Une hura iritsi arte, ulertzen zuen kontratisten beldurrak baretu behar zituela, Wrighten enpresetan alkandora ere galtzeko arriskuan baitzeuden. Horra zer dagoen Jim De Reus kontratistaren

begirada fidakorraren azpian, zeina guri begira baitaukagu *House & Home* aldizkariaren 1959ko otsaileko alearen orrialdeetatik; etxegileentzako aldizkari bat da hori, gaur egun *Fine Homebuilding* denaren antzekoa³⁴. Oskaloosan, Iowa, Wrighten bi etxe eraiki ondoren, De Reusek ziurtatzen zien bere kideei ez zuela dirurik galdu enkargu haietan. Esaten zien, baita ere, egitura eta akabera gisa balio zuten material batzuk erabiltzen bere taldeak denbora gehiago behar izan bazuen ere, xehetasunari erne egon beharrak energiak suspertzen zizkiela. Hau esanez bukatzen zuen: “Uste dut gutariko bakoitza langile hobe delatela etxe horretan lan egin dugulako”³⁵. De Reus ez zen David Timothy, “bibote handikoa eta begiak keinurako prest” zegoen etxegilea bezalako kontratista. Enpresario moderno bat zen, nominak ordaindu behar zituen eta azken aurrerapenak zeuzkaten etxebizitzak eskatzen zituzten bezeroak zituen. Baina galestar igeltsero zaharrak aintzat hartuko zuen haren hitzen espiritua, nola hartu zituen aintzat Wrightek, hura argitaratu eta handik lau hilabetera hil zen arren.

Gaur egun, Wrighten eraikinen eraikuntzan parte hartu zutenen oroitzapenik gehienak beste pertsona batzuek kontatuak behar dute izan eta haien pasadizo asko galdu egingo ziren. Hala ere, arkitekturari esker antzeman dezakegu hala haien eskuen aztarna hormagintzaren erritmoan, nola zurezko junturak eta bikain lerrokatutako torlojuen buruetako xehetasunak. Horrek guztiak agerian uzten du lanak gizakiaren asmoaren adierazpide gisa duen duintasunean Wrightek bizitza osoan izan zuen fede ezin hautsizkoa.

[Itzultzailea: Jon Muñoz]

Oharrak

1. Frank Lloyd Wrightek Darwin D. Martini, 1905eko azaroak 21. Jack Quinan, *Frank Lloyd Wright's Martin House: Architecture as Portraiture* liburuan aipatua (Princeton, New Jersey: Princeton Architectural Press, 2004), 144. or. [itzuli]
2. Frank Lloyd Wright, *Autobiografía*, 1867 [1944], Biblioteca de arquitectura, El Croquis editorial, Madrid, 2004 (1. argitalpena 2004), 24. or. [itzuli]
3. John Ruskin, *The Seven Lamps of Architecture* (1849; New York: Noonday Press, 1961), 12. or. N.E.: Badago obra honen espainierazko bertsio bat [*Las siete lámparas de la arquitectura*, Ed. Alta Fulla, Barcelona, 2000], baina sarrera ez da sartu, eta, beraz, gaztelaniazko hemengo itzulpena gurea da. [itzuli]
4. Maginel Wright Barney, *The Valley of the God-Almighty Joneses* (New York: Appleton-Century, 1965). [itzuli]
5. Wright, *Autobiografía*, 1867 [1944], obra aipatua, 431. or. [itzuli]
6. Frances Nemtin, *Web of Life* (Nemtin, 2001), 4-5 orrialdeak. [itzuli]
7. Frank Lloyd Wright, *The Natural House* (1954, New York: New American Library, 1970), 141. or. [itzuli]
8. Chicagora joan aurretik, Wrightek eskarmentua izana zuen bulego-ingurune batean lanean, zeren eta, Wiscosingo Unibertsitatean ikasle gisa egin zuen aldi laburrean, Alan Conover ingeniariak delinearaz gisa kontratatu baitzuen Madisonen. Mary Jane Hamilton eta Anne E. Biebel eta John Q. Holzheuter, “Frank Lloyd Wright's Madison Networks”, hemen: Paul E. Sprague, ed. *Frank Lloyd Wright and Madison: Eight*

- Decades of Artistic and Social Interaction* (Madison: Elvehjem Museum of Art, Wisconsin University, 1990), 2. or. [itzuli]
9. Muellerekin eta Wrightekin izan zuen lan-harremanaren azterketa zorrotz baterako, ikus Andrew Saint, *Architect and Engineer: A Study in Sibling Rivalry* (New Haven, Connecticut: Yale University Press, 2007), 249-57 orrialdeak. [itzuli]
 10. Frank Lloyd Wright, *An Autobiography* (New York: Duell, Sloan and Pierce, 1943), 159. or. Pasarte hori desagertu egin da Wrighten *Autobiografiaren* espainierazko bertsioetik; 196. orrialdean egon behar luke, *Templo Unitarioaren* eraikuntzaz hitz egiten den lekuan. [itzuli]
 11. *Saint, Architect and Engineer*, 257. or. Petersek, zeinari Wrightek bere "lehen biolina" deitzen baitzion, funtsezko zeregina izan zuen Wrightek 1930eko hamarkadatik bere bizitzaren amaiera arte diseinatu zituen eraikinak egiterakoan. Aldi hartan bertan, Mendel Glickman-ek aholkuak eman zizkion Wrighti ingeniariatzako kontu espezifikoek. Ben Wiltschek Johnson Wax eta *Wingspread* eraikinen eta Kansas Cityko, Missouri, *Eliza Komunitarioaren* kontratista izan zen. Wrightek Wiltschekekin zuen harremanaz egiten duen deskribapena bat dator Muellerekin zeukanarekin, "Benetako lankidetzaz zegoen denbora guztian, erabateko konfiantza bat zuten eta bestearen gaitasunarekin". Wright, *Autobiografía*, 1867 [1944], obra aipatua, 539. or. [itzuli]
 12. Paul Kruty-k Wrightek estudioan eginiko antolamenduaren eboluzioari jarraitzen dio, hemen: "At Work in the Oak Park Studio", *Arts Journal of The Southeast Chapter of the Society of Architectural Historians* 14 (2003). 17-31 orrialdeak. [itzuli]
 13. William Martinek Darwin D. Martini, 1904ko maiatzak 20, hemen aipatua: Quinan, *Martin House*, 88. or. [itzuli]
 14. Darwin D. Martinek Frank Lloyd Wrighti, 1905ko abenduak 26, hemen aipatua: Quinan, *Martin House*, 150-151 orrialdeak. [itzuli]
 15. Frank Lloyd Wright, "In the Cause of Architecture" (1908; *Frank Lloyd Wright: Collected Writings*, 1 liburukia: 1894-30, Bruce Brooks Pfeiffer, ed.) (New York: Rizzoli eta Frank Lloyd Wright Foundation, 1992), 98. or. [itzuli]
 16. Anthony Alofsin-ek bere estudioa berriz martxan jartzeko Wrighten ahaleginak aztertzen ditu hemen: *Frank Lloyd Wright—The Lost Years, 1910–1922: A Study of Influence* (Chicago: University of Chicago Press, 1993), 67-72 orrialdeak. Wrightek Taylor Woolley-ri 1911ko apirilaren 22an idatzitako gutuna aipatzen du, non "guardia zaharra" aipatzen baitu, 68. or. Ikus, gainera, Paul Kruty, *Frank Lloyd Wright and Milway Gardens* (Urbana: University of Illinois Press, 1998), 19-21 orrialdeak. [itzuli]
 17. Wright, *Autobiografía*, 1867 [1944], obra aipatua, 210. or. [itzuli]
 18. Eskerrak ematen dizkiet Taliesin Preservation, Inc.eko Carol Johnson-i eta Keiran Murphy-ri, *Taliesin* eraikuntzaren historiak dakitena nirekin partekatzeagatik. [itzuli]
 19. Amerikar Sistemako Etxe Eraikiei dagokionez, ikus Kenneth Martin Kao, "Frank Lloyd Wright: Experiments in the Art of Building", *Modulus* 22 (1993): 79-90 orrialdeak. [itzuli]
 20. Wrighten eta Marshall Erdman-en lankidetzari dagokionez, ikus Paul E. Sprague, "The Marshall Erdman Prefabricated Buildings", hemen: Sprague, ed., *Frank Lloyd Wright and Madison*, 151-67 orrialdeak. [itzuli]
 21. Ikus Robert Sweeney, *Wright in Hollywood: Visions of a New Architecture* (Cambridge, Massachusetts: MIT Press, 1994). [itzuli]
 22. Jeffrey Chusid lanean ari da gaur egun *Freeman etxearen* historia zehatz batean. [itzuli]
 23. Wrightek A. N. Rebori-ri, 1927ko irailak 15, hemen aipatua: Sweeney, *Wright in Hollywood*, 118. or. [itzuli]

24. Sweeney, *Wright in Hollywood*, 118. or. [\[itzuli\]](#)
25. Wright, *Natural House*, 208. or. "Usonian Automatics" (Usoniar automatikoak) deitzen zien etxe horiei. [\[itzuli\]](#)
26. Ikus Joseph M. Siry, "Frank Lloyd Wright's Annie M. Pfeiffer Chapel for Florida Southern College: Modernist Theology and Regional Architecture", *Journal of the Society of Architectural Historians* 63, 4. zbk. (2004ko abendua): 505-506, 515-516; Mary Jane Hamilton, "The Unitarian Meeting House", hemen: Sprague, ed. *Frank Lloyd Wright and Madison*, 181-182 orrialdeak. [\[itzuli\]](#)
27. Nemtin, *Web of Life*, 21. or. [\[itzuli\]](#)
28. John Sergeant, *Frank Lloyd Wright's Usonian Houses: The Case for an Organic Architecture* (New York: Whitney Library of Design, 1976), 121 or. eta hurrengoak. [\[itzuli\]](#)
29. Bernadine Hagan, *Kentuck Knob: Frank Lloyd Wright's House for I. N. and Bernadine Hagan* (Pittsburgh, Pennsylvania: Local History Co, 2005), 17-18., 22. orrialdeak. [\[itzuli\]](#)
30. William Wesley Peters Greg Williamsek elkarrizketatua, 1989ko azaroak 29, Frank Lloyd Wright Archives. Amherst-eko, Massachusetts, *Theodore Baird* etxerako kontratista orokorra ere Peters izan zen. [\[itzuli\]](#)
31. Paul R. eta Jean S. Hanna, *Frank Lloyd Wright's Hanna House: The Clients' Report*, 2. ed. (Carbondale, Illinois: Southern Illinois University Press, 1987). [\[itzuli\]](#)
32. Hannatarrekin izandako esperientziaren ondoren, *Rebhun, Suntop, Winkler-Goestch, Christie, Affleck* eta *Wall* etxeen eraikuntzaz arduratu zen Turner. [\[itzuli\]](#)
33. Wright, *Autobiografía*, 1867 [1944], obra aipatua, 517. or. [\[itzuli\]](#)
34. "Builder Jim De Reus Tells Your "What We Learned from Frank Lloyd Wright", *House & Home*, 15, 2. zbk. (1959ko otsaila). 126-33 orrialdeak. [\[itzuli\]](#)
35. De Reus, *House & Home*, 126 or. [\[itzuli\]](#)

KOADRIKULATIK ABIATUTA KOMUNITATE BERRI BAT SORTZEA

LAU ETXEKO ETXE-SAILAREN PLANOA ETA
WRIGHT-EN BELARDI-ETXEAREN JATORRIA

NEIL LEVINE

Esan izan da Frank Lloyd Wright hirietako auzo periferikoetarako familia bakarreko etheen arkitektoa dela gehienbat eta ez zitzaiola komunitate jendetsuagoentzako proiektuak egitea interesatu, harik eta 1930eko hamarkadan *Broadacre City* automobilean oinarritutako hiri deszentralizaturako estudioa egin zuen arte. Saiakera honetan zalantzan jarriko da planteamendu hori. Wrightek arkitektura moderno goiztiarraren historiari eginiko ekarpenik ziur asko garrantzitsuenean zentratuko gara, Belardi-etxe iraultzailean, alegia, XX. mendearen hasieraren eta l. Mundu Gerraren hasiera artean garatu zuena. Ideia hau adieraziko da: Belardi-etxea ez zela sortu mota domestikoari buruzko ikerketa erabateko batetik abiatuta, komunitate baten plangintzaren inguruko kontzeptu sozial zabalago batetik baizik, Chicagoko paisaia antolatzen duen koadrikularen eskema ekitatiboarekin bat eginik. Azkenik, defendatuko da plangintza komunitarioari buruzko alderdi sozialaz arkitektoak zituen ideiak ez zirela *Broadacre City*rekin hasi, haren lehen obrekin baizik.

Arazoaren jatorrian ohiko bi kontzeptu oker daude, hau da: (1) Wrightek *Willits familiarentzat* 1902an diseinatu eta hurrengo urtean bukatu zuen etxea Highland Park-en, Chicagoko iparraldeko auzo periferiko batean, alegia, arkitektoaren lehenengo Belardi-etxea zela; eta (2) etxe horretan edo antzeko beste batzuetan planteatzen zitekeen ezin zoru-plangintza tradizio Pintoreskoari zordun zitzaiola, zeinaren XIX. mende bukaera amaierako adibide bat Frederick Law Olmsted izan bailiteke Estatu Batuetan, eta, bereziki, Calvert Vaux-ekin batera hark Riversideko auzo hurbil samarrerako diseinatu zuen proiektua (1868–69)¹. Egia da *Willits etxeak* Belardi-etxea tipifikatzen duela —haren lerro horizontal markatuak, etxe-hegal irtenak, elkarren barnera sartzen diren formak, erdiko tximinia handia eta, batez ere, biragailu itxurako planoak, barrualdeko espazio dinamikoa mota berri bat aurkezten baitu, barrutik kanpora etengabe isurtzeko irudipena ematen duena—, eta mendebaldeko erdialdeko belardiaren zabaltasunaren aipua egiten du horrela; eta, are garrantzitsuagoa dena, planoaren foko zentralizatu eta birakaria diseinuaren izaera autonomoaren adierazletzat hartzen da, bai eta hura sortu zeneko prozesuaren adierazletzat. Badirudi *Willits etxea*, bakartua, independentea, beraren energia espazialen erdigunea eta sorburua dena, etxe indibidualaren beraren diseinuan soilik errotutako inperatibotatik abiatuta garatu dela.

Historialariek arkitektoaren aurretikako diseinu-sorta bat seinatu dute garapen horren ernamuina kokatzeko eta mota domestikoaren barne eboluzio formal autonomo baten ideia indartzeko horrela. Genealogia hori arkitektoak berarentzat 1889an hasi eta hurrengo urtean bukatu zuen etxearekin hasten da; Oak Parken dago etxea, Chicagoko mendebaldeko auzo periferikoan, non gerora Wrightek bere estudioa zabalduko zuen. *Frank Lloyd Wrighten etxeak eta estudioak*, hala deitzen baitaia orain, *Willits etxearen* alderdi jakin batzuk aurreratzen ditu, erdigune zentral bat baitauka, tximinia bat hain zuzen,

inguruan, nolabait esateko, jiraka dauzkan eta kanpora zabaltzen diren espazioen ardatz gisako bat dena. Eta are garrantzitsuagoa dena, espiritu libre bat ezaugarritzat duen diseinu horren izaera nolabait larreko eta ustekabeak Wrighten arkitektura suburbano goiztiarrari dagokion bigarren kontzeptu okerrekoa justifikatzen du, hau da: estetika Pintoreskoaren haren mendekotasuna. Interpretazio egokia izan badaiteke ere Belardi-estilo aurreko etxeentzat, ez da inolaz ere egia garatutako Belardi-etxeei edo geroztikako etxeetan eginiko plangintzari dagokionez.

Riversiden —Oak Parketik bost kilometro eskas hego-mendebaldera dago— egiaztatu ahal izango zuen Wrightek zehatz-mehatz nola estetika Pintoreskoak eragina zuen ez bakarrik etxebizitza partikularren diseinuan, baita ere etxebizitza horiek multzo bat eratuz zuten taldekako antolaeran. Kale kurbatuekin, zelai-eremu handiekin eta berdegune irekiekin planifikatu zen auzoa, landa-paisaia otzandu baten irudia sortzeko. Familia bakarreko etxeak, bata bestearen ondoan ilara uniformetan lerrokatu ordez eta bata bestearen aurrean kalearen bi aldeetan ortogonalki kokatuak egon ordez, ustez naturalagoa den diseinu bati jarraituz kokatzen dira, eta, horri esker, askotariko ikuspegiak dituzte, eta halakoxe bakartze- eta intimitate-maila bat ere bai. Olmsted-entzat, “naturalismo” hura eta dibertsitate hura hiriguneko komertzialismo gogorrerako eta hotzetikako ihesbide bat ziren, zeinaren ezaugarria, Chicagoren kasuan batik bat, koadrikula zorrotz, monotono eta mekaniko bat baitzen. “Hirietako kaleen lerroaren zuzentasun ohikoaren ordez, eta horrek dakarkion planoaren erregularitasunaren ordez [...], zeinak aurrera azkar egiteko gogoia iradokitzen baitu, ez eskuinera ez ezkerrera begiratu gabe”, Olmstedek, haren “Preliminary Report upon the Proposed Suburban Village at Riverside”n (Riversideko hiri suburbanoari buruzko alde aurreko txostena) proposatzen zuen, kaleak diseinatzerakoan, egin zitezela oro har kurba atsegineko lerroak, espazio zabalak, izkina nabarmenik gabeak, soseguzko, kontenplaziozko eta patxadazko sentipen bat iradokitzeko eta sorrarazteko”. Gainera, jarraitzen zuen, “tankera horretako auzo baten plano orokorrek izan behar luke, ez bakarrik irregularra, baita ere [...] Pintoreskoa zalantzarik gabe eta zeharo berritzailea, gure hiri modernoak ezaugarritzen dituzten angelu zuzenen, lerro zuzenen eta eremu lauen etengabeko errepikapenarekin alderatuak”².

Estatu Batuetako arkitekturaren historian izan zuen garrantzia gorabehera, Riverside ez zen anomalia bat besterik izan Chicagoren garapen suburbanoan eta, guretzat esanguratsuagoa dena, giltzarri bat izan zen Wrightentzat. Loopetik (hirigunetik) iparralderantz, hegoalderantz eta mendebalderantz zabaltzen den koadrikula metropolitarretik zeharo desberdina izanik, Riverside esperimntua ez zen sekula berriz errepikatu auzo periferikoen barne zirkuluaren barruan, eta egundaino ere guztiz ez ohikoa da bazter haietan eta Belardi-estiloko hango ingurunean. Chicagok, koadrikula gisa planifikatu baitzen 1830ean, 1785etik 1796ra bitartean indarrean sartu zen lur-neurketa sistema errektangularrak Estatu Batu berrietako mendebaldeko lurraldeetan ezarritako eredu ortogonalari jarraitzen dio. Lur-neurtzaileak erabakitako lurraren peritazio egokia eta banaketa zuzena herritarren erakunde demokratikoen eta komunitateko autonomiaren funtsezko oinarritzat interpretatu izan dira, eta gardentasunezko eta berdintasunezko ingurune bat sortu dute, André Corboz historialariak “utopikotzat” jo izan duena³. XIX. mendearen amaieran Chicagoko auzoak inguruko belardian zehar zabalduz joan ziren artean, Ilustrazioko koadrikularen gidaritzapean eratu ziren. Wrightek oso ondo ulertzen zuen komunitate bat eraikitzerakoan koadrikulak zuen balioa eta garrantzia. Nahiz eta, une jakin batean, bi etxe diseinatu zituen Riversiderako, sekula ez zituen hango planoak eredutzat onartu. Izan ere, uko egin zien, eta “angelu zuzenak, lerro zuzenak eta gainalde lauak” hobetsi zituen, Olmstedei zeharo inspirazio eta interes gutxikoak iruditzen zitzaizkion arren.

Hiri-inguruko bere bezeroen premia indibidualak eta aspirazio komunitarioak aseko zituen bizitegi-arkitektura bat sortzeko Wrighten lehenengo ahalegina Belardi-etxea baino urte batzuk lehenagokoa da, eta hura sortzeko oinarriak ipini zituen, koadrikulak ezartzen zituen baldintzak oinarritat harturik. 1896an, Charles E. Robertsek, Wrighten adiskide, bizilagunak eta kideak, —unitarioa bera bezala— etxe-sail oso baten garapen-plana enkargatu zion, arkitektoak berak Oak Parken zeukan etxetik zazpi etxe-sailera, mendebalderantz⁴. Kokalekuaren planoak, ia plazaratu gabea eta Wrighten artxiboetan gordea dagoena, guztiz harrigarria da. Bere karrerako lehen garaietan arkitektoak talde-diseinuaren arazoa nola planteatu zuen ikusteko aukera paregabea eskaintzen du, eta, gainera, lehenengo Belardi-etxearen ideia ernamuina erakusten du⁵.

Arkitektoak paper koadrikulatua erabiltzen duen lehen aldian, nonbait, puntu-lerroak eta eraikinen aztarnak arkatzez arin markatzen ditu tinta gorri marraztutako koadrikula baten gainean, alboko 2,44 metroko koadroak adierazteko, eta beltzez, berriz, jabetzaren kanpoko muga adierazteko⁶. 1900eko hamarkada hasierarako, “diseinu-unitate sistema” bat erabiltzen zuen jadanik Wrightek, baina azpiko koadrikula nekez sumatuko zen⁷. Eta ez zuen, ezta ere, Robertsen antolamendu-planoko zeregin bera. Azken adibideetan, modulua leiho orridunaren zabaleran oinarritua zegoen, eta egiturazko eta proportziozko sistema koherentea eta integratua sortzeko barne gailu bat zen. Eraikin indibidual baten diseinua eta, azken batean, eraikuntza kontrolatzeko konposizio-tresna abstraktu baten gisa aritu ordez, Robertsen antolamendu-planoaren koadrikulak materialki definitzen du etxe-komunitate baten lurraldea. Aldez aurretikako koadrikula erreproduzitzen du, hark arautzen baitu auzoa bere osoan azpizatitzeko sistema, eta garbi uzten du horrekin Wrightek area metropolitarrak zabalagoko sare sozialtzat sortu zuela Robertsen proiektua.

Wrighten antolamendu-planoak badu berritasun bat, hau da, zein eratan manipulatu duen koadrikula espazio komunitario bat lortzeko, eta, aldi berean, sustatzaileari etekin handiagoa eman diezaiokeen inbertsio bat ere lortzeko. 1894an markatutako hemeretzi lursailen ordez, Wrighten planak hogeita bi zeuzkan. Gainera, ordu arteko mapako lursailak zabalera bera bazuten eta Chicago Hiribiderra orientatuak bazeuden, T itxurako kale-sistema bat sorturik horrela, Wrighten proiektuak antolamendu orekatuago bat du, espazio zentral komunitario baten inguruan. Irtenbide horren berritasuna begien bistakoa da, baldin eta kontuan hartzen badugu estilo horretako Ingeles Lorategi Hiriko ideiak ez zirela hurrengo hamarkadako erdialdera arte sortu⁸. Robertsen planeko erdiko patio lorategi bihurtua hogeita hamar metrotik goraxeago da zabal eta hirurogei metro luze. Diseinu obalatu du, espazio publiko zabala eskaintzen du, eta lorategitik zalditegietara eta estalpeetara sartzea errazten du. Kalea, bereizgarria eta maiz laidoztatua, pasabide estu batera murriztua gelditu da, zeinak, hegoaldeko patioa baitarama Superior kaletik.

Roberts proiekturako behin betiko diseinuek ez dute ezer berezirik. Haietariko seiren marrazkiak gorde dira, eta oso-oso txikiak dira denak⁹. Izkinetako lau etxeek dute berez interes pixka bat, eta horrek zerikusia du ordenazio-planak kokalekuaren izkinak bereziki nabarmendu izanarekin. Izkina karratuko etxeek Wrighten beraren etxearen diseinua garatzen dute, izkina eratzen baitzuen hark ere. Roberts proiektuko izkinako etxeak eskaintzen diren hogeita bietatik zabalena dira, eta plano espazialki konplexuagoa dute. Elementu batzuez gainera —portxe bat fatxada betean eta erdiko tximinia bat bi aldeetara irekia—,

sukaldea angeluan dute, eta zerbitzarietzako eskailera batek lotzen du sukaldea, korridore diagonalen bitartez, obalo zentralarekin. Angeluetatik erdialdera bitarteko lotura esplizituak ematen dio, izan ere, interes berezia antolamendu-planari eta hartxek ematen die garrantzia Wrighten geroztikako proiektuei.

Hogeita bat metrotik gorako alboa duen karratu batek definitzen du erdialdean obaloko espazio komunitarioa, izkinetako lursail karratuen antzera. Zentzu honetan, plan hori interpreta daiteke, lehenik, hiriaren koadrikula unitate karratu txikiagotan zatitzen duen zerbaiten gisara, hura marraztua dagoeneko papereko koadrikulari dagozkiolarik unitateok, eta, gero, unitate horietatik abiatuta, modulu-antolamendu bat eraikitzen du, izkinen mesedetan eta haiek erdigunearekin parekatuz. Wrighti, zalantzarik gabe, hemendik estrapola zitekeen eredu orokorragoa interesatzen zitzaion, eta, handik gutxira, hiriaren koadrikula errektangularra nola azpizatitu aztertzeari ekin zion, eta eskema koadratu ideal bat lortu zuen, izkinako lursailak besterik izango ez zituena eta erdigunea bilgune komunitario bihurtuko zuena. Berak “lau etxeko etxe-sailaren planotzat” bataiatu eta *Ladie's Home Journal* aldizkarirako handik lau urtera egin zuen plano-prototipoa da Wrighten ideia lehena. Horrexek markatzen du orobat Belardi-etxearen agerpena.

LAU ETXEKO ETXE-SAILAREN PLANOA ETA *LADIES' HOME JOURNAL* ALDIZKARIA, “A HOME IN A PRAIRIE TOWN” (ETXE BAT BELARDI-HIRIA), 1900-01

Robertsen hirigintza-planak eskaintzen zituen aukerak garatzeko aukera ikusi zuen Wrightek *Ladie's Home Journal* aldizkariak 1900eko urriko alean argitaratzekoa zen “New Series of Model Suburban Houses which Can be Built at Moderate Cost” (Kostu gutxirekin eraiki daitezkeen etxe suburbanoen ereduaren sail berriak) azterlanean parte hartzeko eskatu zionean. Data horren eta 1902ko urtarrilaren artean plazaratu ziren hamalau kolaborazioetatik bat, Wrightena, “A Home in a Prairie Town” (Etxe bat Belardi-hiri batean), 1901eko otsailean argitaratua, izan zen enkargua etxe indibidual baten testuingurutik harago zabaltzen zuena eta komunitate bat eratzen zuten etxe-multzo baten diseinua eskaintzen zuena. Bigarren diseinu batez gainera, zeina Wrightek 1901eko uztailera alean aurkeztu baitzuen, haren proiektua izan zen sorreran bertan koadrikulan esplizituki oinarritua zegoen bakarra, hura instrumentalizatzen baitzuen¹⁰.

Willits etxeari lehentasuna ematen zaion arren “Etxe bat Belardi-hiri batean” ereduaren adibide gisa, arkitektoak Belardi-etxerako egin zuen hasierako zirriborrotzat jo izan da, oro har, non elementu bereizgarri guztiak agertzen baitira: lerro horizontal zabalak, elkarretara baneratzeko diren bolumenak, tximinia bakartu bat erdialdean eta Chicagoko kokaleku suburbanoarekiko lotura estu-estua¹¹. Baina horrek guztiak garrantzi handiagoa du konturatzen garenean Wrightek ez zuela objektu autonomotzat ez pentsatu ez aurkeztu etxea. Orrialdearen goialdeko lauki batean, artikularen izenburuaren eta testuaren gainean, lau etxe berdinen plano eta perspektiba ageri da, eta lau etxe horiek eratzen dute Wrightek hemen lehendabizikoz “lau etxeko etxe-sailaren plano” deitu ziona, izenburuan argi ikusten den bezala¹².

Wrighten testuak taldearen diseinuaren funtsezko alderdiak eta komunitateak gizabanakoarentzat duen garrantzi handia azpimarratzen ditu. Proiektu orokorrari iruzkin bat eginez hasten da, lau etxe bereiz

diseinatzeko aitzakiatzat eta justifikaziotzat baliatzen duena. Lehenengo esaldian hau esan ondoren: “landa-aldera joaten den hirikumeak garrantzi handiegia ematen dio bere etxeari eta ez behar hainbat garrantzi bere lurralari”, bigarren paragrafoan hau dio: “energia alferrik galtzea dirudi etxe baten plangintza zorira egitea, dagoeneko distortsionatua dagoen egoera bat onartzea edo hari jaramonik ez egitea”. Jarraian, Wrightek bere planteamendu nagusiari heltzen dio, alegia, “hirikumeak belardian behar duen etxerako irtenbide partzial hau hasieratik hasten da eta lau etxe sartzan ditu etxe-sail karratu bakoitzean —alboan ehun eta hogeit metro bakoitzak— belardiko komunitaterako gutxieneko lursailtzat”. Gero jarraitzen du azaltzen: “orrialdearen gainaldean ageri den [...] etxe-sailaren planoak [...] erakusten duen lau etxeen antolaerak komunitate osoaren bizitza eta etorkizuna bermatzen du eta, aldi berean, erabateko pribatutasuna bermatzen du, bai komunitateari dagokionez eta bai lau etxeetako bakoitzari dagokionez”¹³.

Etxe-multzoaren alde aurreko plano eskematikoak argi eta garbi erakusten du diseinuaren azpian dagoen biragailu kontzeptua, eta ezin eztabaidatzeko eran aditzera ematen du Willitsen enkargua baino gutxienez bi urte lehenago iritsi zela Wright errotazio-kontzeptu horretara, eta, are garrantzitsuagoa dena, hori hala egin zuela etxe bakarraren diseinua koadrikularen eskema orokorrari jarraituz planteatu izanaren ondorioz¹⁴. Marrazkiak (zeinari 1903ko okerreko data jarri ohi baitzaio, Wrightek berak eskuineko beheko angeluan geroztik egin zuen ohar batengatik) argi eta garbi uzten digu agerian zenbateraino etxe bakoitzaren gurutzeko oinplanoa eta etxeak elkarren artean erlazionatzen dituen biragailu itxurako forma bat datozen etxe-sail karratuaren eskema ortogonalarekin eta zenbateraino eratorri diren hartatik.

4 akreko lurralde zabala laurdenetan banatu zen akre barreko izkinako lau lursail sortzeko, haietariko bakoitzak 200 oineko bi aurrealde zeuzkalarik. Espaloietatik eta jabetzako barne-mugetatik distantziakide den puntu batean zentratua dago etxe bakoitza. Honela, espaloiek inguruko kaleekiko funtsezko erreferentzia zentrokide bat ezartzen dute eta koherentziaz integratzen dituzte lau egoitza bakartuak. Etxe bakoitzeko teilatu-hegal teilakatuen X itxurako kokaerak gutxi gorabehera barne karratu baten gisara berdefinitzen du kanpoko muga hori. Argitaratu zen multzoaren perspektiban xehetasun handiagoz ikus daitekeen bezala, etxe-sail baten barruko barne-etxe hori tarteko horma txiki batzuek mugatzen dute, etxe bateko sargunezko angeluetatik beste etxeetara doazenak. Eta esparru hain adarkatu horren erdian azken karratu bat dago, biragailu tankerako koadranteetan zatitua, eta koadrante horiek estalpeak eratzen dituzte, sarbidea etxeetako lau sarreren bidexka paraleloetatik dutenak. Etxeen plano biragailu tankerakoa izateak bermatzen du etxe bakoitzak kaletik sarrera independente bat edukitzea, eta orobat bermatzen du erdiko lorategiarekiko intimitatea.

Ikuspegi abstraktu batetik, lau etxeko etxe-sail-planoak gai hauek lantzen ditu: demarkazioa eta laurdenetan zatitzea, erdialdea eta periferia, erdigunea eta perimetroa. Biragailu tankerako azken diseinuan zentratzen bagara, plano, uste izatekoa denez, barrutik kanpora irakurri behar da. Baina demarkazioan eta azpian datzaten eta nagusi diren laurdenetan zatitzean zentratzen bagara, periferiatik erdialdera irakurri beharko dugu nahitaez plano, eta halaxe irudikatu zuen, hain zuzen, Wrightek perspektiban. Eta hortxe gelditzen dira garbi proiektuaren asmoa eta esanahia. Karratu zentrokide bakoitzak barrurantz eginiko mugimendu-gradu bat erakusten du, publikotik pribatu/komunitariora. Espaloiek etxe-multzoaren aurreko zelai-eremu bat lauki batean kokatzen dute, eta etxeetako pareta komunek, berriz, lauki batean kokatzen dute han bizi direnek bakarrik ikus dezaketen barne esparru bat. Atzealdean lorategi komun bat sortu izanaren bitartez komunitate partekatu baten sentipena

eskaintzean, barneko patioko hostotza trinkoak ere orobat sortzen du bizilagunak bakartzen etaaldi berean estalpe elkarri atxikiak disimulatzen dituen pantaila bat¹⁵.

Hemen ez dago plangintza Pintoreskoaren frogarik. Kalearen diseinua ez da agerian agertzen; gauza bihurtu da barneko lorategi zentralean. Etxe indibiduala eta proiektu komunitarioa interdependenteak dira, eta biak, bere aldetik, edo hobeki esanda hasieratik, koadrikula metropolitarraren eta hura diseinu-prozesuan erreproduzitu izanaren mendean zeuden. Proiektu sozial zabalago honetan hartu zuen Belardi-etxearen X itxurako oinplano luzanga eta espazioaren definitzaileak bere tankera.

LAU ETXEKO ETXE-SAILAREN PLANOA ROBERTSEN ETXE-SAILERA EGOKITZEA, 1903

“A Home in a Prairie Town” argitaratu eta handik bost hilabetera, iragarri zen hala Chicagoko prentsan nola Oak Parkekoan Wrightek proiektu bat zuela Oak Parken “kolonia” bat edo “komunitate” bat eraikitzeko; launa etxeko bi etxe-sail izango ziren, lau etxeko etxe-saileko planoan oinarrituak¹⁶. Ezer gutxi gehiago jakin da ez zeregin hartaz eta ezta ere ea Charles Roberts haren aldekoa ote zen ere. Nolanahi ere, handik bi urtera Robertsek oniritzia eman zion Wrighti berak 1896an bere antolamendu-planoa egina zion etxe-saila berdiseinatzeko. Lau etxeko etxe-sailaren plano 1903ko orubeari egokitzerakoan, “Proiektu komunitariotzat” izendatu zuen Wrightek diseinua. Une hartan bere bezeroak proiektua mamitzeko borondatea zuela sumatu zuenez, inondik ere, Wrightek aurkezpenezko marrazki-sorta bat sortu zuen, xehetasun milimetrikoz inprimatutako oihal batean tintaz egindakoa¹⁷.

Robertsek Wrighti antolamendu-plan berraztertu hura eskatu zionerako, Oak Parkeko garapena ekialderantz azkar mugitzen ari zen eta Chicago Hiribidea bide nagusi erabakigarria bilakatzen ari zen. 1902–03an kalearen zoladura, espaloien eraikuntza eta inguru hartan farolak ezartzea onartu zen (komeni da azpimarratzea ezen 14. irudiko ezkerreko eta beheko izkinako iparraldeko orientazioak irudikatzen duen formak farola baten antz handia duela). Proiektuaren urgentziak estutua egongo zenez seguru asko, Wrightek lau etxeko etxe-sailaren planoaren kontzeptua ustiatu zuen, eta handitu egin zuen Robertsen orubeko etxe-kopurua, aurretik proposatu zituen hogeita bitik hogeita laura (izan ere, 1906tik aurrera, Robertsek bere partaidetza saldu zuenean, azkenean eraiki zirenak baino lau gehiago).

Aurkezpenezko marrazkietan lau etxeko plano partzial bat sartu zen, baina, handik gutxira, etxe-sailen goiko erdiaren, alegia, iparraldekoaren, plano idealizatu batean, hogeita lau etxeetatik hamabi ikusten dira¹⁸. *Ladie's Home Journal* aldizkarirako diseinuarekin konparatua, etxe indibiduala lursail bakoitza murriztua geratu zen ia 4.000 metro karratutik sei ehun metro karratu pasatxora, eta kendu egin ziren aurreko multzoko erdialdeko estalpeak. Gainera, etxeak berak 1896ko planekoak baino handiagoak eta, baita ere, ugariagoak zirenez oro har, espazio irekiarekiko eraikuntzaren proportzio handiagoak espazio publikoaren eta espazio pribatu/komunitarioaren arteko erlazioa xehetasun handiz aztertzer behartu zituen, bai eta batetik bestera joateko era ere.

Etxe indibidualak, berdin-berdinak denak, eta adreiluzkoak izango zirenak, Wrightek ordu arte egindako proiekturik aurreratuen dira, elementu arkitektonikoen segregazioari eta abstrakzioari dagokionez.

Zentzu honetan, Bufaloko *Martin etxea* eta *Larkin Company bulego-eraikina* aurreratzen dute, izan ere, biak bukatuta zeuden 1906an, 1904an sortutako diseinuetan oinarrituak baitzeuden¹⁹. Baina Wrighti, Belardi-etxearen batasunaren forma estandarizatuaren eguneratze soila bainoago, gehien interesatzen zitzaiona zen etxe elkartuak elkarri nola lotzen zitzaizkion ikustea eta, batez ere, oinezkoen eta ibilgailuen zirkulazioak nola funtzionatuko zuen ikustea. Pribatutasun eta ikus-eremu auziak konpontzea zen biragailu tankerako diseinuaren helburua.

Lau etxeko multzo bakoitzari elkarrenganako lotura eta kaletik bakartua egotearen sentsazioa emateko eta, aldi berean, metropoliaren koadrikularekiko jarraitutasun bati eusteko, barruko lorategien maila —lau etxeetako bakoitza elkar konektatzen zituen bereizte-horma txikiak mugatuak— malda baino beherago kokatu zen (aise suma daiteke hori ezkerreko goialdeko eta eskuineko behealdeko zatien aurreko alboko bistetan). Eta zirkulazioa errazteko, Wrightek elkarrengandik bereizitako sei mini etxe-sailtan zatitu zuen etxe-saila, bai “zabaldi” deitu zien oinezkoen kale batzuen bitartez, bai “patio” izendatutako ibilgailuentzako pasabideen bitartez. Erabilera askoko kale bakarraren ordeaz, mota desberdineko bide sare finago bat aurkezten zuen, bide haiek izanik zabalagoak eta, aldi berean, bizitoki-unitateen beren tamainari hobeto zegokion dimentsio-sentsazioa ematen zutenak.

Aurkezpenezko marrazki bukatuek, ikusi dugun bezala, lau etxeko sei multzoetatik bakarra erakusten dute. Etxeen lursailak luzangak dira, dimentsiorik luzeena etxe-sailaren alderik laburrenaren paraleloan dutena. Hamarretik gora metro zabal den “patio” batek zatitzen du iparraldetik hegoaldera etxe-saila, eta bost metro eta erdi zabal diren bi “zabaldik”, lore multzodunak, “patioa” ebakitzen dute etxe-sailaren heren bakoitzean²⁰. Diseinua erro-errotik konbentzionaltasun gutxikoa zenez, ez da erraza imajinatzen nola hauteman ahal izango zen komunitatea eta ezta ere zer-nolako itxura izango ote zuen. Wrightek bere bezeroentzat marraztu zuen perspektibetako batek aukera hori ematen digu, ordea, Robertsek saldu ondoren eraiki zen etxe-sailaren airetiko argazki batekin konparatzen badugu, batez ere.

Han ageri diren etxeak 1906tik 1910era bitartean eraiki ziren, gertu-gertu daude elkarrengandik (haietariko batzuen arteko tartea hiru metro eta erdikoa da) eta kalerantz bakarrik daude orientatuak. Batzuen atzealdeak beste batzuen atzealdera ematen du, eta batzuen alboak besteen alboetara eta bi kale nagusietara. Fatxaden kokaera dimentsio bakarrekoak eta linealak esplizituki kontra egiten dio kalearen koadrikularen bi dimentsioko izaerari. Eta etxeen atzean geratzen diren espazioak kalezulo baten mugakide diren patio luzatuak dira, eta horrek indartu egiten du kaleak fatxada gisa duen izaeraren itxura uniforme. Wrighten lau etxeko etxe-sailaren planoak, aitzitik, etxe-sail osoa aktibatzen du, guztiz aintzat hartzen baititu koadrikulak planoan dituen bi dimentsioko ezaugarriak, bai eta haren hiru dimentsioko nolakotasunak, espazioko burdin hesi bat balitz bezala. Ez da hierarkikoa, testura homogenea du, eta dinamikoa suertatzen da bere antolamendu orokorrean. Etxeak, lorategiak eta kaleak elkar txirikordaten dira, eta eskala-sekuentzia graduatu batean zehar mugitzen den eredu bat eratzen dute, eta igarotzen dira, hala, publikotik pribatu/komunitariora, uzten diolarik batari bestean sartzen eta “komunitatearen” ideari dialektikoki definitzen: elkarri lotutako etxe-multzo baten eta azpian datzan koadrikularen azpizatiketa baten gisara.

WRIGHTEN LAU ETXEKO ETXE-SAILAREN PLANOAREN UGALTZEA

1903ko amaieran edo hurrengo urtearen hasieran geldiarazi zuen Robertsek proiektuaren bigarren bertsioa. Ez da gauza jakina bere bezeroaren beste enkargu batengatik izan ote zen edo lau etxe-otxe-sailaren planotik abiatuta koadrikula behin eta berriz zatitzeko beraren obsesioagatik, baina Wrightek ideia lantzen jarraitu zuen eta Robertsen diseinuaren hamaika bertsio egin zuen tamaina eta etxe-kopuru desberdineko etxe-sailtarako. 15. irudiko etxe-sail erdiaren plano idealizatua sekuentzia horren parte izan zen. Hasieran proposatu ziren lursailen forma luzangarekin pozik ez zegoenez, inolaz ere, Wrightek agindu zuen marraz zedila bere estudioan 90 graduko errotazioko ahalik eta lursail karratuenak izango zituzten hamabi etxe-otxe plano bat²¹. Horrela, “zabaldua” iparraldetik hegoalderako pasabide bihurtu zen, oinezkoentzat bakarrik, eta ekialdetik mendebaldera orientatutako bi “patioak” kale partikular bilakatu ziren. Zirkulazio-biderik estuena iparralde-hegoalde ardatzean jartzeak eta hura oinezkoen mugimendura mugatzeak bide hura ohituraren arabera banalerro zen erdialdeko hiribidetik desberdintzeko balio zuen, eta horrek koherentzia-sentsazio handiagoa ematen zion, oro har, etxe-sailari. Aitzitik, “patio” zabalagoek, ekialdetik mendebaldera ebakitzen zutenak eta ibilgailuen eta oinezkoen sarbidea errazten zutenak, etxe-sailaren eskala murrizteko eta haren barruan eta handik kanpo porositate-maila handiagoa bermatzeko balio zuten²².

Robertsen 1903ko proiektu idealizatuarekin zerikusi zuzena duten beste bederatzi plano gorde dira²³. Marrazki-multzo osoa esku bakar berarena (edo gehiagorena) da; ohial inprimatu mota berean eginda daude eta enkarguaren diseinuan erabili ziren tinta eta akuarela berekin. Eta are garrantzitsuagoa dena, marrazki guztietan etxearen txantilo txiki bat erabili da, diseinu-prozesua estandarizatzeko asmoz²⁴. Eta, aztertutako etxe-sail guztiek luzera desberdina badute ere, Robertsenak gutxi gorabehera zeukanaren zabalera bera dute denek²⁵.

Planoetako bat 435 oineko luzerako etxe-sail baterako da, non hamasei etxe eraikiko baitziren, lau multzotan; bi hogeita hamabi etxe-otxe urbanizazio batekoak dira, 685 oineko etxe-sail batean; eta lau hogeita hamabi etxe-otxe urbanizazio baterako dira baita ere, 750 oineko etxe-sail batean. Azken multzoko marrazkirik bukatuenean, etxeetako lursailak karratuak dira ia eta patioak norabide laburragoan eginak dira, Robertsen etxe-sail erdiaren plano idealizatuan bezala. Bateko marrazkiek oin-planoaren marrazkia erakusten dute, besteetakoak, berriz, estalkiaren perspektibatik marraztuak daude. Azken bi horiek bakarrik dauzkate garajeak edo zalditegiak. Bi etxeetarako sarbidea erraztearren, kendu egin zen etxe-saila luzetara zatitzen duen oinezkoen zabaldua eta pasabide estu bat jarri zen haren orde. Hala ere, tinko eutsi zitzaion etxe-ereduaren estandarizazioari, ez baitzitzaion sarrerako ataririk erantsi zortzi egitura horiei.

Robertsen hirigintza-proiektuko plano ugaltu horietan Belardi-etxearen diseinua estandarizatua egoteak eta etxearen unitatea txantilo bidez errepikatzeak argi eta garbi uzten du Wrighti gehiago interesatzen zitzaizkiola erlazio espazialen gaiak eskala handiago batean, komunitatearenean, etxe indibidualarenean berean baino²⁶. “Etxe bat Belardi-hiri batean” proiektuan bezala, etxe-multzoak etxearen beraren diseinuak baino askoz lehentasun handiagoa zuen. Horrek ez du esan nahi Belardi-etxe motaren garapena faktore hutsala zenik berarentzat. Baina kontuan hartu beharra dago beti lau etxe-otxe-sailaren planoak hasieratik balio izan zuela garapen formal haietarako molde gisa eta haren geometria, seinale komunitario gisa, Chicagoko koadrikula metropolitanoaren azpizatiketa ideal berri baten esparru sortzaile bilakatu zela arkitektoarentzat.

Saiakera hau zorretan dago Frank Lloyd Wright Archives-eko Bruce Brooks Pfeiffer-ekin, Oskar Muñoz-ekin eta Margo Stipe-rekin, marrazkiak eta bestelako funtsezko materiala nire eskura jartzeko jarrera mugagabeagatik. Esker oneko natzaio bereziki Pfeifferi, bere denbora eskaini baitzion marrazkietako asko nirekin begiratzeari, eta bere iruzkin ezin baliotsuagoak eskaini zizkidalako. Eskerrak eman nahi dizkiet, baita ere, William Jerousek-i, Michael Koperniak-i, Frank Lipo-ri, Sandra Sokol-i, John Thorpe-ri eta Fred Zinke-ri, Oak Parkekin bereziki erlazionatutako materialarekin laguntzeagatik. Lehenik “Paris-Chicago circa 1850-1900: Parallels Morphological and Conceptual” (Paris-Chicago 1850-1900 inguruan: paralelismo morfologikoak eta kontzeptualak) sinposioan egin nuen hitzaldian oinarritua dago testua; sinposio hura Chicagon eta Oak Parken egin zen 2000ko irailean. Sinposioaren antolatzaile, David Van Zanten-ekin izan nituen elkarriketei zor zaizkie gehienbat nire ideietako asko. Hura zabaldu ondoren, testua lehen batean *The Urbanism of Frank Lloyd Wright* deituko den eta bukatzeko zorian daukadan liburu baten lehenengo zatia da.

[Itzultzailea: Jon Muñoz]

Oharrak

1. Nahita erabili dut “ohiko” hitza [Willits etxea](#) lehenengo Belardi-etxetzat daukan “okerreko kontzeptua” esapidearekin batera. Auzia are korapilatsuagoa da. [Willits etxea](#) “lehenengotzat” jo izan da (a) eraikia izan zelako eta (b) oro har uste delako eraikuntza-lanak 1901ean hasi zirela eta ez 1902an. Henry-Russel Hitchcock-ek *In The Nature of Materials: The Buildings of Frank Lloyd Wright, 1887-1941* liburuan (1942; berriz inprimatua, New York, Da Capo Press, 1975) liburuan, 33-34 orrialdeetan, zioenez, “A Home in a Prairie Town” (Etxe bat Belardi-hiri batean) proiektua, saiakera honetan bertan aurrerago aipatua, “lehenengo Belardi-etxea” zen. Wrightek, Hitchcockek baino hainbat urte lehenago, [Winslow etxea](#) aipatzen zuen, 1893–94, River Forest-en, Illinois, “lehenengo Belardi-etxe” gisa, hemen: “Recollections: United States, 1893–1920”, *Architects Journal* 84 (1936ko uztailak 16): 78. orrialdean eta (1936ko uztailaren 30ean): 142. orrialdean. [Bradley](#) eta [Thomas etxeak](#) kronologia honetan non kokatu diren jakiteko, ikus aurrerago 12. oharra. [\[itzuli\]](#)
2. Olmsted, Vaux & Co, “Preliminary Report upon the Proposed Suburban Village at Riverside, near Chicago, by Olmsted, Vaux & Co. Landscape Architects”, 1868ko irailak 1, hemen: *The Papers of Frederick Law Olmsted*, ed. David Schuyler eta Jane Turner Censer, 6. liburukia, *The Years of Olmsted, Vaux & Company, 1865–74* (Baltimore eta Londres: Johns Hopkins University Press, 1992), 280, 286-87 orrialdeak. [\[itzuli\]](#)
3. André Corboz, “Les Dimensions culturelles de la grille territoriale américaine”, *Le Territoire comme palimpseste et autres essais* liburuan, ed. Sébastien Marot (Besançon: Editions de l’Imprimeur, 2001), 172-84 orrialdeak. Koadrikula gatzgabea, monotonia eta aspergarria zelako aurreko ideiarekin kontrako oraintsuko interpretazioen artean, hauek aipa daitezke: Andro Linklater, *Measuring America: How an Untamed Wilderness Shaped the United States and Fulfilled the Promise of Democracy* (New York: Walker, 2002); eta Dell Upton, *Another City: Urban Life and Urban Spaces in the New American Republic* (New Haven eta Londres: Yale University Press, 2008), 113-79 orrialdeak bereziki. [\[itzuli\]](#)
4. Etxe-saila Ridgeland herrian kokatua zegoen, 1902an Oak Parkek beretu zuen arte, eta Chicago Hiribideak mugatzen du iparraldetik, Fair Oaks Hiribideak (gerora Scoville deituko zitzaion) mendebaldetik, Superior kaleak hegoaldeetik eta Ogden kaleak (gerora Elmwood deituko zitzaionak) ekialdeetik. Dimentsioak, 465 bider 364 oin (142 bider 111 metro, gutxi gorabehera) jabetzaren kanpoko lerroei dagozkie, eta kanpoan uzten dute zintarria arteko espaloia zabalera guztia. Roberts 1889an hasi zen etxe-sail osoa erosten, eta 1895ean

eskuratu zuen jabetza osoa; urte hartan bertan hasi ziren Chicago Hiribidean erdialderako tranbia-zerbitzua eskaintzen. Recorder of Deeds Office, Cook County, Chicago, Illinois. Eskerrak ematen dizkiot Heidi Galles-i informazio hau emateagatik. [Wrighten etxea](#) Chicago eta Forest hiribideen izkinan dago. [\[itzuli\]](#)

5. Muturreko kasu bat bada ere, marrazki hau saiakera honetan aipatzen ditudan marrazki askoren eredu on bat da, ez baita lehenago argitaratu eta ia ezezaguna baita. Gainera, Frank Lloyd Wright Archivesetako marrazki askori oker ipini zitzaion data edo oker identifikatu zen, eta horrek nahaspila handia sortu du gai honetan espezializatutako literaturan, urri samarra baita, izan ere. Neure testuan egindako aipamenaz gainera, “The Quadruple Block Plan: l’obsession de Frank Lloyd Wright pour la grille/The Quadruple Block Plan and Frank Lloyd Wright’s Obsession with the Grid”, Ea V: La revue de l’école nationale supérieure d’architecture de Versailles/Versailles Architecture School Journal 11 (2005/2006): 64–68 orrialdeak, literatura espezializatuan axailetik besterik ez da proiektu hau aipatu, eta 1980ko hamarkadatik aurrera bakarrik, eta, gainera, akatsekin. [\[itzuli\]](#)
6. Ez dago garbi ea paper koadrikulatua erabiltzea Wrighten ideia izan zen. Lursailen zenbakiak eta estolderiaren erregistroak, tintaz, ez dira haren eskuz eginak, baina arkatzez egindako ohar guztiak, etxeen sinboloak, kale-izenak, barne-pasabideak eta erdiguneko dimentsioak arkitektoak berak edo haren estudioko norbaitek eskuz idatziak dira. [\[itzuli\]](#)
7. Gertstarren Whitehall-eko, Michigan, (1902) bi landetxeen marrazkiak, haietan ere koadrikula gorria baita, salbuespena dira. *Architectural Record*eko 1928ko urtarileko aleko [Martin etxe](#)ko planoen koadrikulak, Bufalo (1902–06), Oak Parkeko Tenplu Unitariokoak (1905–08) eta [Coonley etxe](#)koak, Riversiden, (1906–09), aldizkarian argitaratzeko erantsi ziren. Maiz aipatzen den gutun batean, 1904koa, Charles E. White Jr., Wrighten estudioko delineatzaileetako batena (eta Charles E. Robertsen suhia), hark hau dio: “[Wrighten] plano [...] guztiak modu simetrikoz eta sistematikoz elkartutako unitatez osatuak daude”, eta gero hau eranstean du: “sistema bateratu hori da” —haren iritzian— “Wrightek arkitektoari eginiko ekarpenik handiena”. Charles E. White Jr.ek Walter Wilcoxi, 1904ko maiatzak 13, hemen: “Letters, 1903–06, by Charles E. White Jr. from the Studio of Frank Lloyd Wright”, ed. Nancy K. Morris Smith, *Journal of Architectural Education* 25 (1971ko udazkena): 105. or. 1904an hasi zen White Wrightentzat lanean. [\[itzuli\]](#)
8. Tentazioa izaten du batek, marrazki hau ikusita, XVIII. mendeko eta XIX. mende hasierako angloamerikar hiri-plaza tipikoa tankera suburbanoan eraldatu dela pentsatzeko. [\[itzuli\]](#)
9. Etxeen sei marrazkiak eredutzat balio izatea zen asmoa. Seiretatik, hiru “House 1”, “House 2” eta “House 4” idazkunarekin etiketatutak daude marrazkian bertan, eta bat “Corner House” izendapenarekin [“Izkinako etxea”]. 1 eta 2 marrazkien datak 1896ko urtarrilaren 16koa eta 20koa dira, hurrenez hurren. Gainerako marrazkietatik bat berak datarik ez badu ere, ez dago arrazoirik askoz beranduagokoak direnik pentsatzeko. Ez dago frogarik Frank Lloyd Wright Archivesek Corner Houserako eta antolamendu-planerako proposatzen duten 1897ko data baieztatzeko, ezta proiektu desberdin baterako zirela baieztatzeko ere. [\[itzuli\]](#)
10. Wright izan zen bi diseinuk ordezkatutako arkitekto bakarra. Haren “A Small House with ‘Lots of Room in it” aldizkariko 1901eko uztaileko alean argitaratu zen. Beste arkitekto batzuen diseinuak ere argitaratu ziren, hala nola: Ralph Adams Cram, Wilson Eyre, Elmer Grey, Milton Medary eta Bruce Pierce arkitektoen lanak. [\[itzuli\]](#)
11. *Town* “hiria” hitzak garai hartan komunitate suburbano bat aipatu ohi zuen landa-giroko bat baino gehiago. 1 oharrean gorago esan dudak bezala, Henry-Russell Hitchcockek, haren “*In the Nature of Materials*” lanean, aipatu zuen lehenik “Etxe bat Belardi-etxe batean” Belardi-etxearen prototipo gisa. Hala ere, ez dago garbi ea “Etxe bat Belardi-hiri batean” lanerako egindako marrazkiak Kankakee-ko, *Illinois*, [Bradley](#) eta [Hickox etxe](#)ak baino lehenagokoak edo gerokoak ote diren; bi etxe horiek 1900eko ekainean diseinatu ziren, eta kontzeptu honen lehen agerbide eraikiak dira. [Thomas etxea](#) Oak Parken, 1901ean eraiki zena, “Etxe bat Belardi-hiri batean” laneko fatxada nagusiaren egokitzapen oso leial bat da. Kokapenaren eremu urriagatik ezin izan ziren planoak erabat garatu. [\[itzuli\]](#)
12. Lau etxe-erakunde oinarritutako proiektu honen eta beste batzuen bigarren mailako iturriak hauek dira: David P. Handlin, *The American Home: Architecture and Society, 1815–1915* (Boston eta Toronto: Little, Brown, 1979), 141–66, 158–66 orrialdeak; Gwendolyn Wright, *Moralism and the Model Home: Domestic*

- Architecture and Cultural Conflict in Chicago, 1873–1913* (Chicago eta Londres: University of Chicago Press, 1980), 132-49, 280-94 orrialdeak; D. P. Handlin, "The Context of the Modern City", *Harvard Architecture Review* 2 (1981ko udaberria): 76-89 orrialdeak; G. Wright, "Architectural Practice and Social Vision in Wright's Early Designs", hemen: *The Nature of Frank Lloyd Wright*, ed. Carol R. Bolon, Robert S. Nelson eta Linda Seidel (Chicago eta Londres: University of Chicago Press, 1988), 98-124 orrialdeak; Donald Leslie Johnson, "Origin of the Neighbourhood Unit", *Planning Perspectives* 17 (2002): 227-45, eta D. L. Johnson, "Frank Lloyd Wright's Community Planning", *Journal of Planning History* 3 (2004ko otsaila): 12-19 orrialdeak. [itzuli]
13. Frank Lloyd Wright, "A Home in a Prairie Town", *Ladies' Home Journal*, 1901eko otsaila, 17. or. [itzuli]
 14. *Ladies' Home Journal*erako Wrightek egindako bigarren diseinuaren planoak, "A Small House with 'Lots of Room in It'", "A Home in a Prairie Town"en jadanik zirriborratutako biragailuaren ideia lantzen zuen, gerora Willits etxean hartu zuen forma zehatzarekin. [itzuli]
 15. Ez zegoen, nonbait, atzeko patio batzuk bestetatik bereiziko zituen hesirik, nahiz ezin den ziurtasun osoz baieztatu. [itzuli]
 16. "New Idea for Suburbs. Plan of Frank Lloyd Wright", *Chicago Evening Post*, 1901eko uztailak 12, 8. or.; *Oak Park Reporter*en berrinprimatua, 1901eko uztailak 18, 4. or. [itzuli]
 17. Marrazkiek datarik ez badute ere, ez dago zalantzarik proiektuari egozten zaion 1903ko data zalantzan jartzeko. Baliteke 1904en jarraitu izana. Charles Whitek Walter Wilcoxi datarik gabe idatzi zion gutun batean, 1904koa dela uste den arren, Smith-ek, "Letters"en, 107. or. hau dio: "Roberts aita" pentsatzen ari da orain "Wrightek bere etxe-sailerako eginiko hoge [sic] etxeko zirriborroaren asmoa aurrera eramatea". [itzuli]
 18. Erdi plano idealizatuari dagokionez, ikus segidan 22. oharra. Wrightek oker argitaratu zuen plano hori 1900–01eko "Etxe bat Belardi-hiri batean" zegokionari balitz bezalako bere *Ausgeführte Bauten und Entwürfe von Frank Lloyd Wright* (Berlin: Ernst Wasmuth, 1910[1911]) lanean. Aldez horren ondorioz, gai honetan espezializatutako literaturak nahasi egin du bere leku zehatza lau etxeko etxe-sailen planoen iterazioen kronologian. [itzuli]
 19. Martin etxeanren planoak "Etxe bat Belardi-etxe batean" planoarena da zehatz-mehatz, 1903ko Roberts etxeetan islatzen den diseinuaren eboluzio baten arabera berezia eta abstraitua. [itzuli]
 20. Lau etxeko multzoaren dimentsioak zuzenak diren artean, Superior kaleko eta Scoville Hiribideko fatxaden dimentsio orokorrak alderantzizkatuak daude. Gainera, azkenekoa bere aurreko izenaz izendatua dago: Fair Oaks. [itzuli]
 21. Horren ondorioz, luzatu egin zen etxe-saila (espaloien barne ertzeraino), eta, hala, lehen 465 oin bazituen, orain 558 oin zituen (142 metrotik 170 metrora). [itzuli]
 22. Aldi bere-berean, etxe-sailaren hegoaldeko erdiaren planoaren bertsio alternatibo bat ekoitzi zuen estudioak, non eraikinen eta bide publikoen oso konfigurazio desberdina agertzen baitzen (FLW0309.019; aldez aurretik FLW0019.004). Plano horretan, zeinaren ardura, ziur asko, Walter Bulley Griffin-ena izango zen, Wrighten delineatzaileetako batena, hain zuzen, etxeek ez dute jadanik biragailu-antolamendua, eta ez daude, ezta ere, beren lursailean erdiratuak, aitzitik, binaka konbinatzen dira eta ekialdetik mendebaldeko norabidean orientatutako kaleen espaloietara eta "patioetara" hurbiltzen dira. Etxe-sail bakoitzaren erdian multzo independenteak eratu ordez, lau etxeko taldeek unitateak osatzen dituzte kale pribatuen espazio barruan. Etxeen atzealdeko galeriak elkartzen dituzten horma txiki baxu batzuk iparralde-hegoaldeko norabidean orientatuta daude, barne lorategi luzeak eratzeko, zeinak "patioak" zeharkatuz luzatzen baitira, espaloietan ebakiak eta landare-parterreak egin izanaren bitartez. Zelai-eremu are handiago bat zabaltzen da iparralde-hegoaldeko norabidean etxe-sailaren erdiraino, eta jendeari sarbidea ixten zaio, bai hegoaldeko eta bai iparraldeko, bigarren horma txiki luze eta etxe-sailaren perimetro osoan jarraipena daukan baten bitartez. Etxe bakoitzak sarrerako pasealeku bat du, eta, baita ere, ondoko etxearekin partekatutako auto-sarrera bat dirudien zerbait, eta horrek susmoa sortzen du ez ote den plano alternatibo hau ariketa bat leku hartan garajeak edo estalpeak nola egokitu zitezkeen ikusteko. Halakoxe nahaspila gertatu da Griffinek Wrighten plangintza

suburbanoan izan zuen zereginari dagokionez. Donald Leslie Johnson-ek liburu honetan, *The Architecture of Walter Burley Griffin* (Melbourne eta Sidney: Macmillan Company of Australia, 1997), 41. orrialdean, hau zioen: “Wrighten lau etxeko planoen hasierako garapen lana Griffini enkargatu zitzaion”, nahiz hura ez zen Wrighten estudioan sartu 1901eko ekaina arte, proiektua argitaratu eta handik lau hilabetera arte, alegia. Ideia horri jarraituz, Charles E. Aguar-ek eta Berdeana Aguar-ek, *Wrightscapes: Frank Lloyd Wrights Landscapes Designs* (New York, McGraw-Hill, 2002) idazlanean, 55-58 orrialdeetan, Griffini egozten dizkiote 1903ko Robertsen etxe-sailaren diseinuaren bi bertsioak, Grant Carpenter Manson-ek, 1940an, Marion Mahony Griffin, Walterren emaztea, alde zurretik Wrightentzat lan egin zuena, elkarrizketatu zuenean hartu zituen oharretan oinarriturik. Hau da, berez, Mansonek hartu zuen oharra: “Griffinek, bat-batean, hirigintza-plangintzarako halako sen bat erakutsi zuen, eta horrek emulazio-nahi bat eta jelsia pixka bat piztu zuen FLWrengan —horren ondorioa izan zen FLWen ‘Lau etxeko etxe-sailen planoak’ esan zitzaiona—, baina oso gaizki iruditzen zaio, ikuspegi erabat okerra: etxeek ez zuten barrualderantz orientatuak egon behar, etxe-sailaren kanpoalderantz baizik. Eta, gainera, kalerik eta espaloirik gabe”. Grant Carpenter Manson, “Records of F.L. Wright”, Oak Park Library, Oak Park, Illinois, 2. fitxa, aurrealdea. Marion Mahony Griffin-ek, “Democratic Architecture-II. Its Development, Its Principles and Its Ideals”, *Building 14* (1914ko abuztuak 12) 91. orrialdean, hau esaten zuen: “Wrighten lehenengo [sic] ohiko multzo-planoak” elkartuak aurkezten zituela lau etxeak, “etxe-sailen erdialdeetan, batik bat, lursail guzti-guztiak fatxadak ematen duen kalerantz irekita utzirik, eta, beraz, ez dute pribatutasunik eta puska batean ibili edo gidatu beharra dago etxeetara sartu ahal izan aurretik”. Hori batere praktikoa ez zela konturaturik, Walter Burley Griffinek “lau etxeen eskema eraldatu zuen, eta izkinetan ipini zituen, etxe-sailaren erdian jarri ordez”. Cammie McAteeri eskertzen diot Mansonen elkarrizketaren transkripzioa eman izana. [itzuli]

23. Horieta hiru bakarrak, aurreko oharrean deskribatutakoak barne, jarraitzen dutenez Griffinen antolamenduaren eskema alternatiboa, uste izatekoa da Wrightek argi eta garbi nahiago izan zuela lau etxeko etxe-sail mota. Bederatzietako bat marrazki bat da (FLW0309.006), zeinak, lau etxeko etxe-sailen planoen konposizio bat ilustratu ordez, erakusten baitu etxe-sailaren alde batean kalerantz orientatutako etxe konbentzional sail bat eta, beste aldean, berriz, Wright estiloko etxe-sail multzo bat. Marrazki horren xedea Wright estiloko etxeek etxe konbentzionalekiko duten nagusitasuna erakustea zela interpretatu izan den arren, oro har, nik esango nuke marrazki hori egin zela argi uzteko etxeen diseinuak berak ez zuela garrantzirik, lau etxeko etxe-sail planoak eratzen zuen azpizatiketa berriarekin konparatuta. [itzuli]
24. Interesgarria gertatzen da Wrightek txantiloia gorde izana; alde zurretik sekula argitaratu ez bada ere, Frank Lloyd Wright Archives-en dago txantiloia hori. [itzuli]
25. 367koa izan zen aldea, 364 oinen aurrean (112 metro 111 metroren aurrean, gutxi gorabehera). [itzuli]
26. Txantiloia 1912–13 arte ere erabili izan zen; orduan, George Hooker, Chicagoko City Club-eko udal-idazkariaren eskari bati erantzunez, Wrightek marrazki bat egin baitzuen lau etxeko etxe-sailen oinarritutako hogeita hamabi etxe-saileko bizitegi-urbanizazio baterako. City Clubek antolatutako koadrikulako sail-eredu bat (Model Quarter Section) diseinatzeko lehiaketan berriaz parte hartu ez bazuen ere, Wrighten proiektua 1913ko udaberrian erakusgai egon zen beste proposamen batzuekin batera eta lehiaketa dokumentatu zuen liburuan argitaratu zen: Alfred B[eaver] Yeomans, ed., *City Residential Land Development: Studies in Planning. Competitive Plans for Subdividing a Typical Quarter Section of Land in the Outskirts of Chicago*, *Publications of the City Club of Chicago* (Chicago: University of Chicago Press, 1916ko abendua) 96-102 orrialdeak. [itzuli]